

NEGUKO HOZPEAN

Cristina González

Lantziego, 17 urte

Hotza! Gorputz osoan sentitzen dut hotza, hotzikarek zeharkatzen dute nire soin osoa hortzak mugiarazten dizkidatelarik. Sudurra gorri-gorri daukat, begietatik malkoak darizkit eta masailetatik zehar irristatzen dira ondoren bularretan barrena ezkutatzeko. Eskuak ere zauri txikiz josita ditut. Katuren batek egingo ote zizkidan lotan nengoelarik? Seguruenik ez, animaliak ez dira horren gaiztoak. Oraintxe oroitzen naiz nire aitaren hitzez, bai. Joan den urtean etxean geundela, sutondoan, eskuak igurzten, berotzekotan, orduan esan zidanean “Marian, etxean hotza pasatzen badugu ere, pentsa kalegorrian bizi den jendearengan, banku baten azpian lo egin behar dutenengan, egunkari orri-zimelduez edota narrioz beteriko kartoiez hai-zearengandik babesten direnengan. Norbegian negua oso gogorra da alabatxo, eta eskerrak eman behar diozkigu Jaungoikoari teilatupean lo egin ahal dugulako”. Garai horretan ez nuen nire aitak esandakoa ulertu; agian berak deskribatutako jenderik ez nuelako ezagutzen, edo hitz handirik inoiz pasatu ez nuelako beharbada. Berdin dio, ez zait axola iragana, ez diot irtenbiderik aurkituko lehenaldiko oroimenetan nire egoera larriari. Pasatutako gauzetan pentsatzeak ez dit askorik lagunduko, irribarre izozturen bat besterik ez du piztuko

nire gorputz uzkurtuan. Hobe dut mugitzea eta jateko zerbaiten bila joatea; nire sabela ere bihurtzen ari da, eta ez dut uste eguraldiagatik izango denik.

Zabortegira abiatzen naizela, nire pentsamenduak berriz ere denboran atzera egiten du; haurtzaroko gauzak dakarzkit. Hasieran, nire bizilagunak Gabonetan oparitutako panpina lirainak zeharkatzen ditu nire burutazioak; nire aitak irabazten zuen soldata ez zen nahikoa beharrezko ez ziren gauzak erosteko, nahikoa genuen hilabete-ko azken egunak arte diru pixka bat gordetzearekin, sabela ogi puska bate ahal izateko. Ondoren, nire anaia Fernan jaioberria amatxoren besoetan gogoratzen dut; zelako ilusioa egin zidan bere etorrerak, oraingoan benetako panpina bat nuen pixoihalak aldatzeko. Azkenik, harri batekin behaztopatu baino lehenago, nire gurasoekin egon nintzeneko azken egunez oroitzen naiz. Mahai biribil baten inguruan geunden, anaia eta biok garagardo botilen txapekin jolasean; ama poltsatxo txikietan hauts-txuri batzuk sartzen koi-laratxo batez eta kontu handiz, eta aitak, aldi berean, gatz antzeko substantzia horrekin parrastadatxoak egiten balantza txiki batetik pasa ostean. Ez dakit, ez nago oso ziur, baina nire gurasoak egiten ari zirena ez zen zuzena izango. Halako batean, atean jo gabe, polizia bi sartu baitziren indartsu, eta ama eta aita besoetatik bortizki heldu, eta pelikuletan agertzen diren kotxe argidun horietan eraman zituzten. Fernan eta biok

etxean bakarrik gelditu ginen, zer egin eta nora jo jakin gabe.

Belaunean harri batek zartako ederra emana izateak, nire gogoetak aldendu ditu. Oraingoan lurrean etzanda nago, zutitu ezinik, eskubiko hankan ziztadak sentitzen ditudala. Begirada belaunera botatzean, odola daridala ikusten dut; hotza pasatzea nahikoa ez balitz, zauria ere jasan behar dut. Ezin dut negarrik egin; gogor eutsi behar diot neure izaerari; lehenbailehen nire bidea jarraitu behar dut. Ezin naiz gelditu Fernan nire zain baitago, jateko zerbait eramaten diodan itxaroten. Bere bizitza nire menpe dago ama eta aita desagertu zirenetik; bost urtekin ez daki gauza handirik egiten; ezin dit lan gogorretan lagundu. Noizbait gure gurasoez galdetzen dit “Marian, nora joan ote ziren ama eta aita? Oporretan al daude?” Nik baietz erantzuten diot; nagusia denean ulertuko du nire gezurren zergatia. Egunen baten ezagutuko du egia. Neu ere desagerpena ulertzera helduko naizenaz ziur nago, baina... egunen baten.

Dagoeneko heldu naiz zabortegira, ea gaur suertea dudan eta zerbait atsegina aurkitzen dudan, niretzat ez bada ere, behintzat Fernan gizajoarentzat. Bista aurrerantz bota dut eta horixe da. Koloreko poltsez betetako zakar menditxoak ditut nire aurrekaldean. Ez dago beste ezer; inor ez doa halako leku desatseginetara. Kaihoek bakarrik laguntzen didate beren soinu bereizgarriekin. Haiek ere bertan bilatzen dute jana; eurek ere gurasoak galdu ote dituzte? Ez dakit, baina halaxe

izango da. Baliogabeko gauzak gainera baztertzeari ekin diot, hauen azpian zerbait probetxagarria aurkitzekotan; sagar erdi-ustelen bat, ogi puska gogorak, ... eguna pasatzen lagunduko digun zerbait.

Asperraldia gainditzeko abesten hasi naiz. Oso gogoko ditut nire bizilagunak garbitzen zegoela abesten zituen kantak. Benetan pozten ninduen bere ahots goxoa leihoen bitartetik entzuteak. Liluratu egiten ninduen. Abestiak sarri entzuteagatik, orain, ni ere berak egiten zuena imitatzeke gainaiz; kantatzeaz gain, dantzatzea ere gustoko dut; erritmo osoz mugitzen ditut ene besoak eta hankak, telebistan egertzen diren pertsonaia famatuen antzera.

Nire ekitaldian nagoela, bibotedun gizon batek bizkarrean kolpe txikia emanaz deitu du nire arreta. Nik bat-batean gorputz osoa higiezin utzi dut; jendearen aurrean dantzatzea ezinezkoa suertatzen zait. Nire masailak gorritu zaizkit; begiak platerak dirudite; ahoa zabal-zabalik daukat; guztiz harrিতuta nago. Parean dagoen tipoa, bitartean, irribarretsu, alai eta pozik. Ederto dantzatzen dudala aitortu dit. Guztiz maiteminduta geratu da nire txairotasunarekin. Harridura nire partetik areagotu egin da bere esanarekin "Artista bat ematen duzu, primeran aritzen zara. Gustatuko litzazuke gaur gaueko saioan antzezle izatea?" Bihotzak azkartasunez ematen ditu taupadak oraingoan, odola bizitasun osoz higitzen da ene zainetatik, aurpegian, belarritik belarrira irribare erraldoi-kis-

kil bat marraztu zaidan heinean. Hau da beti amets egin dudaneko aukera. Ni, Marian antzetzoki baten gainean dantzatzen, denon poztasuna eta mirespena sortaraziz, egun batez denon artean nagusiena izanik. “Bai, noski!” izan dira lehenengo bi hitzak. Mingaina trabatuta daukat, ihardun ezinik. Bat-batean, denaz ahaztu naiz; sabelak zaratak egiteari utzi dio; gogor eutsi diot gizonaren eskuari korrika eta tiraka Fernanen bila abiatu garelarik. “Hantxe dago nire anaiatxoa! Berak ere gurekin etorri behar du; ezin dut bakarrik utzi”. Bitartean mutiltxoak mesfidantzaz so egiten digu, aurpegi arraroz. Gertatutakoa berari kontatzea alferrikakoa dela uste dudanez, gizonak bazkaltzera gonbidatu gaituela adierazi diot naturaltasunez. Hau entzun bezain pronto guztiz aldatu du bere begirada bizia eta salto batez nire besoetan eskegi da. Gezurra esatearen arrazoia, bera oraindik gauza asko ulertzeko gai ez delako da. Nik ere, beste hainbeste gertaerak ez dakit zergaitik pasatzen diren, baina egunen baten jakingo dut.

Hain noa pozik non Fernanen pisua ere ez baitut nabaritzen nire soin xehearen gainean. Pentsatzen dut, beste bi ume zintzilikatu balira nire lepoan, jasango nituela antzeztearen truke. Lotsatia naiz, baina hau berehala menperatzen da. Hala diote telebistan agertzen diren pertsonaia famatuek. Beraiek gainditu ahal badute, zergaitik ez dut nik ere lortuko? Dagoeneko antzerkiaren atarian gaude; inurri bat zaborteagian banintz bezala sentitzen naiz; benetan txikia. Nola sentituko ote

da Fernan? Zer pasatuko da une honetan bere burutik? Berdin dio, mundu osoan zehar famatua izatea lortzen badut, ez du berriro ere goserik pasako, ezta kalegorrian bizi edota zabortegian janari bilatzerik izango ere. Aukera hau ezin dut desaprobatxatu, segurtasunez aritu behar dut jendearen aurrean, toreatzaileak plazara agertzen diren moduan, indarrez, eskudantziatz.

Ia ohartu gabe, soineko dotorea janzteko unea heldu zait. Esekilekua benetan zoratzekoa da, liliuragarria, xarmagarria. Beraz, nire gainean are ederragoa izan behar. Urduritasuna nire gorputzaren jabe egin da; eskuak geldiezin daude, hortzak dardarka eta begiak etengabe itxi eta irekitzen dira. Ezin dut sinetsi, hori ezin zait niri gertatu, hala bai Marian? Zu zara hementxe dagoen neskatxa, zu eta ez beste inor.

Aulki dotore baten esertzeko agindu dit aurpegi goxo-polita duen emakume ttipi batek. Segituan eserleku horretara hurbiltzen naiz berak esan didanari obedituz, baina guztiz harrituta nago. Aulkia oso altu dago, nire lepoaren altueran. Ezinezkoa dut bertara igotzea, baina badaezpada ahaleginduko naiz. Salto bat eman dut eta ez dut lortu; berriz ere jauzi egin eta... alferrikakoa. Azkenik, emakumeak besapetik heldu eta eseri egin nau aulki erraldoi horretan; ematen du nire saiakerek grazia egin diotela, barrezka ari da eta. "Begiak itxi itzazu, laztana" esan dit, eta pintzela hautsez beteriko pote batean sartu du, ondoren nire aurpegian igurtziz. Orain aurpegian daukadana, nire gurasoek, polizia

etxera sartu zenean, maila gainean zutena igango ote da? Agian bai. Ez nago ziur. Dakidan gauza bakarra, hautsek ene sudur-motzean kilikak sortarazten dituztela da. Ez dut hauek jasaterik, eta doministiku egin dut andrearen aurpegia txistuz betez. Berak haserretu beharrean, berriz ere, barre egin du; pazientzia izugarria eduki behar du. Hori bai pairamena, hori!

Publikoaren aurrean agertzeko prest nagoela dirudi. Emakumeak begiak irekitzeko eta bere lana bukatu duela esan dit. Nik hori egin dut, eta nire irudia ispiluan isladatuta ikustean pozez negar egiteko gogoa izan dut, baina malkoei eutsi egin diet; bestela andreak egindako lana absurdua litzateke. Ederra baino ederragoa nago, inor baino politago. Ipuinetako printzesa bat ematen dut soineko liluragarri eta orrazkera eder honekin.

Beno ba! Aulkitik jaisteko salto haundi bat ematearekin nahiko izan dut. Ez dut izan laguntzaren beharrik oraingoan. Kortinen atzekaldera abiatzen naizelarik nire gurasoez oroitzen naiz berriz ere. Nire amak ikusi banindu horren dotore... seguruenik berak ere nigar egingo zuen. Noizbait aberatsak izatera heltzen baginen armairu erraldoi bat eta arropa ugari erosiko zidala esaten zidan. Agian dirua irabazten egongo da orain, Fernan eta bioi gauzak erosteko. Auskalo!

Bat-batean, nire adimena blokeatuta geratu da. Eserlekuetatik kriston algara dator kortinen atzekaldera. Jendea txaloka eskatzen ari zait antzezto-kira agertzeko, nire mugikortasuna erakusteko,

nire ahotsa agerrarazteko. Ez dut gehiago itxarongo; urduritasuna alde batera utzi dut dagoeneko, edo hori uste dut, eta besterik gabe kortina zehar-katuko dut. Harrigarria da publikoa egoera horretan ikustea: pozik, gogoz, adoretzu. Fernan lehen lerroko eserlekuan kokatu da bere eskuetan goxokiz betetako poltsa duelarik. Nire ametsa betetzen hasia da. Orainarte nahiko sufritu dugu. Ondo bizitzeko txanda heldu zaigu. Musika entzuten da. Segundo batzuk barru abesten hasi behar dut, baita ahal dudan ondoen egiten ere.

Abesten hasi naizenean oihuak isildu egin dira, jende guztia lotan gelditu bailitzan, publikoa desagertu balitz moduan. Eskerrak abestiaren esanak gogoratzen ditudala. Ene urduritasuna *lurrindu* egin zait bat-batean, konturatu barik; askatasunez eta eskudantziatz mugitu eta dantzatzen naiz albo batera eta bestera jendearen txaloen erritmoarekin batera. Gezurra badirudi ere, zabortegean, bakardade osoz nagoela ematen du; pertsonengatik ez naiz behartuta sentitzen, ez dut beraien presioa jasan beharrik.

Animo Marian! Azkenengo leloa besterik ez zaizu falta, egin ezazu esfortzu handi bat ekitaldia bikain amai dezazun. Eta horrela egin dut. Dena gainditu dut. Primeran irten zait ahotsa, sekula baino hobeto. Hau jendeak erakusten dit. Indarrez txaloka ari da nire izena oihukatzen duen heinean, "Marian, Marian, Marian!" Bibotedun gizona ere alaitasunez beterik dago. Atsegina iruditu zaio nire saioa. Barre egin du nik berari begiratzean. Azaldu

ezina da sentitzen dudana; denok ni animatzen, Fernan poz-pezik eta ni...zer esanik ez!

Berriro ere hasi dira niri deika “Marian, Marian, Marian!” Norbait dago nire gainean bizkarrean joka. Bai, Fernan da nire gainean dagoena, nor eta nire anaiatxo, “Marian, Marian, Marian! Esna zaitetz!” Begiak ireki ditut eta zabortegian nago, aldizkari tolestu baten gainean non abeslari errubio-eder bat ageri den soineko ikaragarri batekin. Nik berriz, zarpailak besterik ez daramatzat gainean, orbanaz beteriko arropak. Fernanek ere ez dauka eskuetan goxokirik, ezta ogi puskaren bat ere. Dena nire irudimenak sinestarazi dit; ametsetan egon naiz.

Hau desilusioa, hau! Berriz ere aldizkariari begira geratu naiz ametsetan jarraitu nahian, nire ilusioari eustekotan, inoiz ez esnatzekotan. Dena alferrikakoa izan da; ene gorputzari so egin eta ez dago soineko liluragarri hori ikusterik, ezta nire ile-nahasiak bere tokian jartzeko erarik ere. Ez dago zer eginik, ni zabortegian nago, neskato eder-xarmant baten argazkia nire azpian dudalarik. Ez dago Marian printzesaren aztarnarik, ezta publikorik ere; zabortegian neu bakarrik nago, nor eta Marian gizajoa bakardadean barrena.

Beno Marian, janaria bilatu beharko duzu, ez dago beste ezer egiterik. Amorru biziz zakarren gainetik altxatu naiz. Nire arropa astindu dut zaborra kentzekotan eta segituan aldizkaria bortizki itxi dut. Ondoren, haserreturik, poltsa eta hondarren artean ezkutatu dut inoiz berriro ez ikusteko. Ez

dut berriz ere amets egin nahi; ametsak asko gus-
tatzten bazaizkit ere, esnatzeko ordua oso mingotsa
da.

Etsipenez ekin diot berriz ere janaren bilaketari
poltsen artean, eta begirada altxatzean, urrunean,
bibotedun gizon bat niregana hurbiltzen ikusi dut.
Bai, ametsetan agertu deneko tipo bera, antzeztokira
eraman nauena. Zer nahiko ote du?